BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

3632

AGINDUA, 2011ko ekainaren 14koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, Tolosako (Gipuzkoa) CEPA «Tolosa» HHIren izen espezifikoa aldatzea onartzen duena.

Tolosako (Gipuzkoa) «Tolosa» Helduen Hezkuntzako Ikastegiaren izen espezifikoa aldatzeko aurkeztu den proposamena aztertu da.

Espedienteari Hezkuntzako Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzak egin dizkio izapideak eta indarrean dauden arauek eskatzen dituzten agiriak erantsi zaizkio.

Gai horretan aplikatu beharreko legeria ikusi ondoren, hau

EBATZI DUT:

1. artikulua.- Onartzea CEPA «Tolosa» HHIren izen espezifikoa aldatzea: aurrerantzean CEPA «Tolosaldea» HHI deituko da. Ikastegi hori Tolosako udalerrian (Gipuzkoa) dago, Igaralde kaleko 23an, eta 20008091 kode-zenbakia du.

AZKEN XEDAPENA

Agindu honen aurka aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko ekainaren 14a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburua,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.